

Bahitutako printzesak askatzen zituen amets-harrapatzailea

Etzekoek nahiz kanpokoek, guziek zioten Amets neska ezin prestuagoa zela: zintzoa, langilea, polita, fidagarria, sentibera, leiala, atsegina...maitagarria guztiz.

- Señorita (andereño) bat bilakatua zara!- erran ohi zion auzoko bizilagun bazter-nahasleak-. Handituta ez zaizu senarrik faltako.

-Egun batean seme-alabak izango dituzu- erran ohi zion amonak-; emazte zoriontsua izango zara.

-Amets biziki ernea da- erran ohi zuten aho batez bere irakasleek-. Lan bat aurkituko du aise...

-Zuek bai zortea!- erran ohi zieten haren gurasoei-. Alabak ederki zainduko zaituzte zahartzean.

-Zintzoa baino zintzoagoa da- erantzun ohi zuten aita-amek harro-harro-, inoiz ez digu hutsik egin.

Ametsek ttipitik ikasi zuen esker txarrekoa izatea baino gauza itsusiagorik ez zegoela; horregatik, hitz balakariei (konplimenduei) irri umil batekin erantzuten zien beti. Lagunek ere biziki maite zuten. Salbu Garazi jeloskorrak (bekaiztiak) ez hainbeste, baina Ametsek ez zion sekula haren so gaiztoari kasurik ematen. Ametsek, guztien begietarik, zoriontsu izateko hamaika arrazoi zituen.

Alabaina, egun batean, gogoa ilundu zion gertakizun bat agitu zitzaion, arras sinesgaitza, gurasoei ere erratera ausartu ez zena. Goiz batean jaiki, mirailaren aitzinean eman eta ohartu zen ez zuela bere burua ikusten; ikusezina bihurtu zen.

Denboraldi hartan Amets aldatu zen; xangrinak (tristeziak) hartu zuen. Halere, bere tristura hain zuen gordea, non ez baitzuen bere irriño goxoa galdu. "Ez dakit zer gertatzen zaion-zioen amak- erran daiteke bere baitan desagertu dela".




Mirail aitzineko desagertze hark, hastapenean, ikaratu bazuen ere, egunak jin, egunak joan ohitu egin zen, eta denborarekin lasaitu ere bai.

[...]

Bere hamahirugarren urtebetetze egunean, ustekabean, opari bat ukan zuen Ametsek.

[...] Pakete bat ikusi zuen sukaldeko mahai gainean, bere izenean. Paristik zetorren; noizbait etxean aipatzen entzun zuen izeba zahar baten izena zekarren gutun-azalean.

Ireki eta zintzilikario bat topatu zuen, ohartxo batekin: *"Mamu maltzurretarik printzesak askatzeaz gain besteen ametsetan bahitutako (preso hartutako) neskak askatzeko ere balio du kuttun honek. Zorionak".*



Geroztik, urte anitz iragan
 dira. Gurasoen etxea utzi
 eta beste aterpe batzuk
 bilatu ditu Ametsek.
 Urtebete darama Parisen;
 bere gelako oheburuan
 oparitarako ukan zuen
 amets-harrapatzailea
 dauka zintzilik emana.
 Azkenean, lortu du bere
 ametsa betetzea;
 marrazkilaria da.



Marrazkia: Aina
 Azpiasu, "AXPI"
 Ipuina: Antxiñe
 Mendizabal (moldatua)

Aina Azpiasu "Axi" marrazkilaria

(Hernani 1980-Gipuzkoa) Arte Ederrak ikasi ondoren,
 ilustrazioak (liburu, kazeta, afixak...), komikiak (Irrien Lagunak,
 H28...), horma-irudiak,... eginez edo haur eta gazte ateleriak
 animatuz bizi da.



Ipuina uler dezagun

a- Amets hain da perfektua non handituta aise ukanen baititu:

- ◆ senar bat ◆ lan bat ◆ moto bat ◆ seme-alabak ◆ zaldi bat

b- Xantza dute Ametsen burasoek:

- ◆ burasoak zahartzean ongi zainduko baititu
- ◆ errugbilari famatua bilakatuko baita.

c- Noren ametsetan preso (gatibu/ bahitu) sartu dute Amets?

- ◆ bere familiakoen ametsetan ◆ Ametsen ametsak dira egiazki

d- Mirailean ez da agertzen, zergatik?

- ◆ ez baita aski perfektua ◆ ez baitu bere ametsik

e- Amets-harrapatzaileak balio du:

- ◆ mamu maltzurretarik printzesen libratzeko
- ◆ besteen ametsetan preso diren nesken libratzeko

d- Handituta, Amets:

- ◆ Parisera joan da bizitzera ◆ burasoekin da etxean

e- Zein zen haren egiazko ametsa?


- ◆ marrazkilari izatea ◆ printzesa bat izatea

Axpiren ilustrazioak azter ditzagun

a- 1. ilustrazioa: Non da Amets? Zer egiten du? Zer gertatzen zaio? Zergatik? Nola ageri da? Nola sentitzen da?

b- 2. ilustrazioa: Non da Amets? Noiz iragaten da? Zer du eskuetan? Zer da kutxaren barnean? Nork igorri dio? Nondik? Zergatik kadira gainean ematen da? Nola sendi da Amets? Nor da 2. pertsonaia?

c- 3. ilustrazioa: Bere burua ikusten ote du mirailean orain? Zer adin du orain Ametsek? Zertan ageri da? Zer lan egiten du orain? Zertan ageri da? Zer ageri da gibelean zintzilik? Nola sentitzen da? Zertan ageri da?




d- Ilustrazio estiloa azter dezagun:

- Nola erakusten ditu **ingeradak** (pertsonen edo gauzen ingurua, bazterra)?
 - ♦ marra beltz zorrotzez
 - ♦ kolore aldaketek dute erakusten
- Nolakoak dira **pertsonaiak**?
 - ♦ biziki errealistak
 - ♦ estilizatuak: buru handi, esku eta oin ttipiekin
- Nolakoak dira **begiak**?
 - ♦ borobil eta handiak
 - ♦ egiazko proportzioetan, biziki errealistak
- Nolakoak dira **koloreak**?
 - ♦ pastel tonukoak
 - ♦ bizi-biziak
- Nola marraztuak dira inguruko **jantziak eta gauzak**?
 - ♦ inprimakiz apainduak
 - ♦ kolore bakarrekoak, hitsak
- Eszenen eta gauzen **perspektiba**?
 - ♦ zuzena eta errealista da
 - ♦ perspektiba faltsua da (pixka bat kubista)
- Ba ote da **itzalik eta bolumenik** (modelaturik)?
 - ♦ ez, kasik dena laua da
 - ♦ bai

e- Zer diozu ipuinaren eta ilustrazioen arteko loturaz?

- ♦ Marrazkiek ez dute deus ikustekorik ipuinarekin!
- ♦ Marrazkiek laguntzen dute ipuinaren ongi ulertzen.
- ♦ Marrazki horiek irudimena, poesia eta irria dakarkiote ipuinari.



Ilustrazio bat egin ezazu Axpiren gisan

